

# ARTEA ETA MEMORIA PROGRAMA

## REKALDE ARETOA 2016

### JARDUERAREN IZENA

*Gogoratzen?*, hitzak berak adierazten duen moduan, gogoan izan edo gorde gure bizipenak, gure oroitzapen pertsonalak, gure ondare ukiezinaren parte baitira.

### ERLAZIONATUTAKO ERAKUSKETA

ISABEL GARAY erakusketak arte-sormeneko prozesua islatzen du, eguneroko memoriarekin egiten dugun hezkuntza-lanarekin erlazionatuz. Arte-lanen bidez, gure ezagutza, jakingura, behatzeko ahalmena eta ikusmina handitzen ditugu, zeinak funtsezko balioak diren nagusien kolektiboekin egiten dugun esku-hartze kognitiborako.

### NORENTZAT

60 urtetik gorakoak, sexua eta prestakuntza akademikoa edozein direla ere.

### IRAUPENA

Saioak ordu 1 eta 30 minutu irauten du, eta honela dago antolatuta:

- Bertaratutakoek eta hezitzaileak beren burua aurkeztuko dute, eta bakoitzaren izena duen etiketa jarriko dute (10 minutu).
- Arte-lanak banan-banan ikusiko dituzte, eta haietako hiru aukeratuko dira ezarritako helburuak lortzeko (30 minutu).
- Bertaratutakoek galderak egin ahal izango dituzte, eta haietako bakoitzak lan bat aukeratuko du (20 minutu).
- Zati praktikoa (30 minutu).

### HELBURUAK

1. ISABEL GARAYren erakusketako lanak banan-banan ikustea eta gure bizitzaren oroitzapenekin eta memoria-esperientziekin lotutako hiru lan aztertzea.
2. ISABEL GARAY erakusketaren funtsezko kontzeptuak ezagutzea.
3. Arreta lantzea Isabel Garayren aukeratutako lanen materialak, koloreak eta estruktura serieak aztertuz.
4. Aukeratutako artelanetan aurkitzen diren estruktura geometrikoak, bolumenak eta gure errealitate sozialeko espazioen ezagupena sustatzea.
5. Eguneroko bizitzako objektuak aipatuz, esparruak eta antzeko elementuak agertu daitezkeen lekuak landuz taldeak saioan landutako gogoetak partekatzea.

## **BISITA**

Saioen antolaketa eta ISABEL GARAYren erakusketa lanen aukeraketa —esku-hartze kognitiborako eta eguneroko memoria lantzeko— Raquel Olallaren doktorego-tesian oinarrituta daude, bai eta egokituta ere programan ari diren ikasleen aurretiko jakintza-mailara.

## **JARDUERA**

Behin hiru lanen iruzkina eginda eta bisita amaituta, gogora ekarriko ditugu deigarriak iruditu zaizkigun irudiak, eta irudiok norberaren ibilbide pertsonaleko oroitzapenekin zein bizipenekin lotuko ditugu.

Beste ikasleek aipatutako zehaztasunak arretaz aztertuko ditugu, eta arte-kontzeptuekin lotuko ditugu. Hala, garrantzia emango diogu egunerokoari, pentsamendu abstraktuaren eta formaren bidez.

### **1. saioa:**

MARRAZKIA. Lehenengo saioan marren eta norabideen azterketa landuko dugu lan multzoa ezartzeko. Koloreak eta norabideak memorizatuko ditugu eta Isabel Garay-ren lanaren berreraikitzearen bitartez gure arreta deitu dituzten elementuak aztertuko ditugu. Marrazkiaren gaineko aurretiko jakintzetan oinarrituko gara, marra, kolorea eta espazioa eta piezaren elementuen arteko loturak aztertuko ditugu.

### **2. saioa:**

ESKULTURA MODULARRAK. Bigarren saio batean hiru dimentsioak landuko ditugu marrazkitik abiatuz: laukitik, kubora eta kubotik hasita elementu geometrikoaren errepikapenean oinarritutako eraikuntzetara. Saio honetan prozesu kognitiboak aztertuko ditugu eskultura aztertuz, sinpleenetik, konplexuenera, bakoitzaren sormenetik esperimendatuz eta beste partaideen lanarekin erlazionatuz.

### **3. saioa:**

MATERIALAK, BEIRA. Azkeneko saioan Isabel Garayren eskulturan aurkitzen ditugun materialak aztertuko ditugu, bereziki beira. Gure eguneroko bizitzan aurkitzen ditugun objektuetan beira nola erabiltzen den ikusiko dugu eta material honek gure egunerokotasunean zer nolako presentzia duen aztertuko dugu.


HAUTATUTAKO LANAK:



*Sin título, 1997*  
Pastel sobre papel, 104 x 73 cm c/u



*Aire armado I, 1993*  
Acero corrugado 250 x 175 x 175 cm



*Vidrio, 2011*  
25 módulos de vidro, 250 x 150 x 5 cm